Pintores navarros

Aipatu gabe utzi ezinezkoa deritzat Iruñako Aurrezki Kutxa Munizipalak argitara berri duen liburua, Pintores navarros *izenburuz. Sail hortako lehen zenbakia da eta, itxura denez, jarraipena izango du. Hala balitz, ongi legoke nafar pintatzaileek beren foruen alde irten direla esatea, zeren Euskal Herrian aintzinatik pinturak inun indarrik izan badu, Nafarroan izan du.*

Hispania-flamendar eskolak Tutela aldean izan zuen sarrera Pedro Diaz de Oviedo-ren bidez eta gerozik eten gabeko tradizioa izan da Erribera aldean. Batzu Aragoiko influentzia zutenek, garai harta Tutela Aragoiko eliz-barrutikoa zenez. Han ezagutu ziren Pizkundea zehar Agreda-ko maisua deritzana, R.J. de Monzón, D. Polo, F. Orgaz, F. Aria eta abar, eta beren artean Felipe Gil bizkaitarra ere bai. Geroago agertuko ziren P. Etxepers eta ondotik manieristakk. Baina, Nafarroaren Ifarraldera, Iruñatik ez hain urruti, Ororbia-ko maisutzat aipatzen denaren lana bera oso kontutan haritzekoa da. Ikus J.R. de Castro-ren lanak.

Beren ondorean etorriko ziren manieristak. Oraindik urte bete baizik ezta Vicente González-ek agertu zuen iker-lan bikaina Museo e Instituto "Camón Aznar" boletinean Andres de Urzainki Kaskantekoak bere herrian eta Zaragozan utzi zituen laneri buruzkoa. Bestalde, Juan de Landak Iruñan sortu zuen eskolari buruz E. Casado Alcalde-k eman zizkigun berri jakingarriak XVI. mendearen azken parteko arteaz egin zituen ikerketetan, eta haintzat hartzekoak dira Landaren inguruan formatu zirenenak ere. Iruñako museo berean bada artista horien muestra ederrik.

Baina, gure egungo lana argitara berri den liburukoenetara lotuko dugu. Era egokian aurkeztutako Pintores Navarros *deritzan liburuan gure mende hontako hamahiru pintatzaileren bizitza eta lanen berri ematen da. Alfabeta ordenan, liburuan datozen bezala, emango ditugu beren berriak:*

S. Asenjo Arozarena iruñarra, 1834an sortua, gazterik Valencia-ra joana zen eta bere arte erak Mediterraneoz kutsatuak dira. Erromantiko erak zituen, eta bere zenbait lan Nafarroako Museoan daude.

Jesus Basiano murtxantearra, 1889an sortua, gure artean askoz ere ezagunagoa genuen. Gure mende honen hasieran Bilbo inguruan indartu zen euskal eskolarekin ere bazuen zer ikusirik. Kolore biziak, pintzelada ausartak erabiltzen zituen bere laukietan. Paisajegintzan arduratu zen.

Julio Briñol ordea Bueños Aires-en sortu zen 1902an, baina haurtzarotik Tafallan Bizia. Bi urte besterik ez zituela etorri bai zen Ameriketatik, eta lehenengo Iruñan eta gero Madrideko Real Academia de Bellas Artes de San Fernando-n egin zituen ikasketak. Pintatzaile ona zen eta bere gairik gehienak paisajea eta Euskal Herriko mendialdeetan jendea orio-pinturaz oihaletarra eramatea izan zen.

Jabier Ziga iruñar jatorra ere Iruñan lehenik, Madrid-eko San Fernando gero eta ondorean Paris-en formatu zen. Bere ikasketen ondorean Bilbo inguruko euskal eskolari lotu zen, bere era pertsonala utzi gabe. Etnia zuen maite, baina horrez gainera paisajea eta erretratua ere erabili zituen. Gainera, inoiz, hiperrealismo, joerak ditu.

Crispin Martínez aibartarra, 1903an jaioa, Donostian, Iruñan eta Logroñon bizi izan zen. Ziga-ren ondoan hartu zituen ikastaro batzu aparte, bere kaxara formatu zen. Autodidakta bizkorra, bereziki dibujoan agertzen zen maisu.

Franzisko Etxenike baztandarra, 1890an Elizondon sortua, paisajegintzan oso ona zen. Postinpresionisten puntillista joera zuen eta detailerik tipienak ere ahalik egokien jasotzen arduratzen zena genduen.

Nikolas Espartza tutelarra, 1873an jaioa, San Fernando Akademian ikasia zen Nafarroako Foru Diputazioaren bekaz. Moreno Carbonero izan zuen bere maisua eta erretratugintzen ona zen. Hala ere, bere lanetan gora-behera handiak nabari dira. Ez dakigu zergatik, baina ez zuen jakin maila berdintsua jarraitzen.

Inozenzio Garcia Asarta, 1861ean Gastiain-en sortuak Gasteizen egin zituen lehen ikasketak, handik Erromara joateko, eta denboraren ibiliaz Bilbon kokatu zen, han bertan Regoyos, Ginea eta Giard-en inguruan euskal eskolaren sorketan lagunduz. Beraz, Euskal Herriko lehen inpresionisten artekoa dugu.

Gustavo de Maeztu, 1887an Gasteizen jaio bazen ere, Bilbon lehen ikastaroak Antonio Maria Lekuona eta Manuel Losadarekin egin ondoren Paris-era joan zen, itzultzean Lizarran kokatzeko, bere burua lizarratar eginaz. Dibujatzaile ona zen eta kolorez ere ez txarra. Euskal eskolako pintoreen artean onenetariko bat genuen, bigarren aldiko postimpresionisten artean.

Julio Martin Caro, Iruña bertakoa, 1933 sortua. Gazte hil zen, 35 urte doi zituela. Euskal eskola hautsirik, Garcia Asarta eta gainerakoek markatu zuten bidetik loturarik gabe gelditu zen. Iruñan, Madrid-en eta Italian egin zituen ikasketak eta abanguardiatik abiatu zen eta, garai txarrak izan baziren ere, bere ospea eta sari anitz jaso zituen.

Miguel Pérez Torres Tutelakoa, 1894an jaioa, Madrid-en eta Barcelona-n formatu zen. Hala ere, bere herriaren ohoregarri, Euskal Herriko jendea beren langintzen ihardunaz etnia gaiak zituen maite.

Gerardo Sacristan Logroñokoa, 1907an jaioa, Madrid-en ikasketak osatu ondorean Iruñara jo zuen berrogetakagarren urte haietan Institutoko katedra irabazirik, eta Nafarroan burutu zituen bere lanak. Oso akademikoa zen, dibujatzaile ona eta erretratugintzan yayoa.

Azkenik, Enrike Zubiri "Manezaundi". Luzaidetarra zen, bainan ez bertan jaioa, Donibane Garazin baizik, 1867an. Behar bada, sortzearen agririk ez arkitzeagatik dio liburuan bere biografiaz gauza guti dakitela; baina "Manezaundi" euzkal idazlea ere bazenez, nere Escritores euskéricos*-en jasoa nuen bere fitxa. Bere haurtzaroa eta gaztaroko urterik gehienetan Luzaiden bizi izan zen, eta gero Iruñan Artes y Oficios Eskolako irakasle. Liburu honek, bere arte lanak hobeto ezagutzeko aukera ematen digu eta esan genezake erretratugintzan biziki ona zela.*

Liburua, neurri handiz eta kolorezko irudiekin aurkeztua da, oso ondo inprimatua. Artista bakoitzaren ahalmenan neurria eskaintzen digu eta orohar esan genezake Nafarroak ohizko pinturazko arteari jator jarraitzen diola.

Juan SAN MARTIN

Si en alguna parte de Euskal Herria cabe
pictórica, fue en Navarra. Se conservan muchas
en el Museo de Navarra, desde la pintura mural
los lienzos contemporáneos, pasando por los
manierismo, los románticos y los postimpresionistas
mada escuela vasca. La primera fase se sitúa en el
de su reinado, con influencias plásticas importadas
rrientes internacionales, principalmente
Francia. Sin embargo, la pintura primitiva de
pano-flamenca que penetró en España a mediados
XV y que se atribuye al viaje de los hermanos
Juan Van Eyck, introdujo en el área de Tudela
Oviedo que tuvo sus seguidores, y que desde
extendiéndose hacia el Norte. La obra anónima
Ororbia testimonia la presencia de esa corriente
ya, que en época inmediata destacaría en la
plona J. de Bustamante, vecino de Estella,
de la Torre. Otro autor anónimo, al que se le
maestro de Agreda, sería uno de los adelantados
rismo en la primera etapa del Renacimiento.
consolida un movimiento que continúa a lo
XVII, con vinculación a las "escuelas aragonesas".
A. de Urzainqui de Cascante trabajó mucho
blo natal y en Zaragoza, y dejó continuidad en
brinos. En Pamplona, el que consolida la corriente
es Juan de Landa. Al que seguirían sus discípulos
ductor de aspectos naturalistas, y entre su obra
retablos de Eransus, Cáseda y Sagaseta.

La obra de reciente publicación por la Caja de
Municipal de Pamplona, *Pintores navarros*, es la
mental de la continuidad, el eslabón que nos
tradición pictórica. Con la presencia de esta obra
dada, cabe decir: los pintores navarros a por
misma se recogen las biografías y muestras de
pintores románticos, postimpresionistas y vanguardistas
lustiano Asenjo Arozarena, Jesús Basiano, Julio Briñol,
Ciga, Crispín Martínez, Francisco Echenique, Inozenzio
parza, Inocencio Garcia Asarta, Gustavo de Maeztu,
Martín Caro, Miguel Pérez Torres, Gerardo Sacristán
que Zubiri. En el texto se lamenta la falta de datos
del último de los artistas, Enrique Zubiri "Manezaundi".
Valcarlos, que además era escritor en euskara.
ficha en *Escritores euskéricos* y he de repetir que
cialmente nació en San Juan de Pie de Puerto (Ba
o la sexta Merindad) en el año 1867.

De entre los mismos, estuvieron vinculados a la
vasca de pintura que se desarrolló desde Bilbao a
impresionismo, contándole a I. Garcia Asarta como
dores, J. Ciga y G. de Maeztu que fue uno de los
aquella escuela en su segunda etapa, la postimpresionista
cierto modo Basiano.

La publicación que debe tener continuidad en
menes, nos abre una perspectiva general de
cultural pictórico de un próximo pasado. Una obra
que debe tener buena acogida así en Navarra como
resto del país.

Lehen literatur hizkuntzak

Gaur egunean, Informatikaren ikhertzaile batzuek, makhinentzako hizkarak aztertzen eta bilhatzen dituztelarik, Gizartearen lehen literaturhizkuntzari behatu diote, haren izaikeraren ikhustekotz. Material iraunkhor baten gainean mintzatu hitza birsortzeko ideia eduki ukhan zuten semertarrek, duela bortz mila urthe Mesopotamiko hiri batetan. Hunela Uriko aphezek Gizartearentzat orhoitmen berri bat aurkhitu zuten, eta desarroilatu eta hunen arauera Historia Jakintza ta Literatura sorthu ziren baseak eman zerauzkiguten. Gaur egunean, askotan Kybernétikêari ta Informatikaren iraultza berri ta importantari buruz hitz egiten dugunean, nahi-eta-ez ikasi behar dugu, nola gaur-eguneko aintzinapen guztiak egiteko beharrezkoak diren baseak orduan Mesopotamian sorthu ziren. Literatur hizkuntza zahar hauien erkatzean, robot-hizkuntza berriek, makhinen stupiditatea zein handia den erakhusten deraukote. Egiazko literatur hizkuntzen bidez gizonen izpiritua zabaldu zen, gizon genialen lanaz. Bainan, gaur eguneko robot-hizkerak ikhertzen ba ditugu, berehala ageriko zaiku, hizkara hauien expresatzeko posibilitateak zein murritzak diren.

Sumertarrek beren mirakuilu horren bidez gizarteari, batez ere gizartearen intelligentziaren desarroiloari ematza ezin-hertzea egin zeraukoten. Geroz hatsarrean hunela eginikako mirakuilu huntatik bertze mirakuilu berriak sorthu ziren Athênetan, Indus-haranean eta Txinherrian. Hortakotz erraz enthelega genitzazke historilari anglo batek umiltasunaz erranikako hitzak, "ezen gutartean Europan, graikoa ez dena, nahi-eta-ez salbäia dela". Europako literatur hizkuntza guztiok, latina bezala, geroagoz Renaissance epokhan sorthurikako literatur hizkuntza berriagoak ere, soilik zibilizazione hizkuntzak bilhakatuak dira, graikarazko mailegu lexikalez, morphologikoez eta syntaktikoez. Eta ematza bizi-emaile hau ezein ere herrik refusatu ez du, salbu-eta abertzalekeriaren bidez pozoindurik zegozenek, eta hunela kasu hauietan, bethi ere gerthatzen den bezala, beren herriei kalte handia egin derauete hunelako ematzeak zein beharrezko diren ikhusi ez zituztenetan. Geuk europarrok, guztiok, Sumer-herriari ta Helladari zor diotzategun kultur-ematza hauk, zeinen bidez egiazko gizonak bilhakatu bait gara, nehoiz ere ahantzi behar ez genituzke. Hunela eginaz geroz orduan bai behar bada ikher genezake eia hizkuntza hauiek euskararekin askazigoa duten eia euskararen eta sumerkararen artean hitz berdinak, ala forma grammatikal berdinak dagozenz. Argi ta garbi da, ezen hunelako askazigo hurbil bat egun zalantzarik gabe izan ez ditekela, zeren-eta sumertarrek irazteko tekhnêa aurkhitu zutenetik 5.000 urthe joan ba dira. Gaur-egun ere ezein linguistak ezin lezake, orain bizi diren latin-berrietatik latin zaharren formak berr-sort, baldin-eta latinaren literatura zaharra ez ba geneduka. Halatan ere, euskara zuzeniki sumerkaratik ethor liteke, bainan nola 5.000 urthe hauietan egon litezken forma bitartekoak ez bait ditugu, hunelako azkazigoa erakhuts liteke, egon ba dadi ere. Huntara euskararen eta sumerkararen arteko ditugun hitz berdinak, eta grammatikazko morphê berdinak, orain behinik-behin "koinzidentzia hutsak" bezala konsideratu behar ditugu.

Hitzetan, berdingoak ez dira asko: Euskaraz ***begi,*** *sumerkaraz:* ***igi,*** *eusk.:* ***etxe,*** *sum:* ***ex(e),...*** *bainan grammatikazko formetan hauk ditugu euskaraz:* ***etxera, etxetik, etxean;*** *sum.:* ***exera, exeta, exêan;*** *euskaraz:* ***garai,*** *sum.:* ***gal*** *(handi). Bigarren personen personal suffixuak euskara modernoz* ***-zu*** *eta* ***-zuen*** *dira, sumerkaraz bezala. Ba dago euskaraz* ***-ko*** *suffixo genetivua bat, eta orobat sumerkaraz* ***-ka*** *suffixu bat erran-nahi berdinaz, bai eta* ***-an*** *genetivua sumerkaraz:* ***-ä(n)*** *izaiten da. Har ditzagun adibide ttipi batzu:* ***dumu an-na an gal, ki-gal-ta. Dumu*** *(seme);* ***an(zeru); an-na*** *(zeruaren);* ***an-gal*** *(zeru-garai);* ***ki gal—ta*** *(toki handitik). Beraz euskaraz:* ***Zeruaren semé, Zeru garai, lur zabaletik!.*** *Bertze hymno baten strophê hauk hartzen ba ditugu:* ***zal nagazu, zal nagazu, kax nu-enag, amax-zu umuninag.*** *Euskaraz:* ***aberatsa*** *(zal)* ***zure*** *(-zu)* ***edaria*** *(naga),* ***ardano*** *(kax)* ***ez*** *(nu)* ***edana zure ahuntzek*** *(amax)* ***edanen dute*** *(uminag). Beraz ikhus ditekenez ba dagotza bi hizkuntza hauien artean nolabaiteko koinzidentziak, bainan gaur egun ezin diteke erran hizkuntza biak askazi direnik.*

Askaziago hau ttipia izanagatik, askozaz interesantago da haren hautemaitea, ezen-ez harri-kokorrak biltzea ta aztertzea, zeinen bidez soilik humanoide ta pithêkoetatikako ethorkia erakhusten bait da. Kulturaren ikhertzapenek Izpirituari garamazkiote; prekulturarenek pithêkoari.

Federico KRUTWIG SAGREDO

Algunos investigadores modernos en Informática, queriendo buscar nuevos "lenguajes" para sus máquinas, se han cuestionado sobre la naturaleza de la primera lengua escrita de la humanidad. Fueron los sumerios quienes tuvieron la genial idea de reproducir sobre un material duradero la palabra hablada, y creando de esta forma el primer idioma literario, proporcionaron al hombre un nuevo tipo de memoria. En nuestra época moderna, en que estamos hablando de la próxima revolución cibernética, tenemos que constatar que todos los actuales avances en este sentido se hacen siempre a partir de una lengua literaria y que los llamados lenguajes de robot, tan sólo son reducciones extremas de los lenguajes literarios hasta límites de estupidez, como es la de todo robot en sí.

Los sumerios pues, dieron la base del desarrollo de la inteligencia y de la cultura con su descubrimiento. Y a partir de este milagro inicial, surgen cuatro troncos culturales que, a su vez, son cuatro nuevos milagros que elevan a la humanidad: Son el milagro griego, el semita, el sánscrito y el chino. Así pues, se comprende a un famoso historiador inglés, quien dijera con humildad referiéndose a Europa: "En Europa lo que no es griego es salvaje". Todas las lenguas literarias europeas desde el latín hasta las posteriores surgidas en el Renacimiento, tan sólo han llegado a ser lenguas de civilización, gracias a una aportación, lexical y gramática, griega. Tan sólo hemos visto rechazar esa fuerza vivificante entre pueblos mentalmente retrasados y atosigados por una falsa patriotería, que a quienes más mal han hecho, como siempre pasa en estos casos, es a la nación que querían mantener "descontaminada".

Debiendo pues nosotros, en tanto que europeos, tanta gratitud a Sumeria y Grecia, gracias a quienes somos auténticamente seres humanos, siempre pensé que era interesante examinar si esas lenguas benefactoras de la humanidad tenían, en sus formas primitivas, algo que nos permitiera acercarse del euskara.

Es evidente que un tal [illegible] no puede surgir de [illegible] puesto que hace [illegible] años desde que las sumerios [illegible] ron la escritura, de [illegible] hoy en día, ningún [illegible] reconstruir el latín [illegible] tuales lenguas [illegible] seyéscenos la [illegible] Careciendo es [illegible] dos intermedios, [illegible] determinar si el euskara [illegible] son lenguas salidas [illegible] común. Posiblemente [illegible] que nos llaman la [illegible] cias. En realidad [illegible] 2a. persona singular [illegible] posesivo de 2a. [illegible] *-zuen*, las cuales [illegible] sumerio, en donde [illegible] sativos subjetivos [illegible] palabras [illegible] euskara y sumerio [illegible] como ligs en [illegible] vasc.: etxe; gal [illegible] en vasco gona [illegible] cabría decir [illegible] vasc.: ahk [illegible] (en vasc.: ark [illegible] rian: ligin [illegible] igiñ(n) (begi) [illegible] fijo -ka (nuestro [illegible] -an. Aunque [illegible] ciente para [illegible] entre ambas [illegible] otras son [illegible] Con todo ello [illegible] resanie examinar [illegible] culturales, que [illegible] Los primeros [illegible] piritu, los segundos [illegible] musitaran [illegible] humanidad y del [illegible]